

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 34. BILERA AKTA

**EGUNA: IRAILAK 9, LARUNBATA**

**ORDUA: 9:30**

**TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA**

### **BERTARATUAK**

GURE ARRANO ELKARTEA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
IRAIN GURASO ELKARTEA  
IRAIN ESKOLA  
MAIRU ANTZERKI TALDEA  
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
BETI-GAZTE ELKARTEA  
LESAKAKO ABESBATZA  
MUSIKA ESKOLA  
LESAKAKO MUSIKA BANDA  
TRIKITIXA ELKARTEA  
TXISTULARI TALDEA  
EH BIDU TALDEA

### **AINZINAKO AKTA ONARTZEA**

Onartzen da.

### **SORGINXULOREN DINAMIKA**

Norbait berria agertzen bada bilgunearen dinamika aurkezteko puntua da hau, baina berririk ez dagoenez hurrengo puntura pasatzen da.

### **BILEREN KRONOLOGIA**

Ikasturteko bileren datak proposatzen dira:

- Urriak 14
- Azaroak 25 (Santa Zezilia ospatuko da egun honetan, behar bada aldatuko da)
- Urtarrilak 13
- Otsailak 24
- Martxoak 23
- Maiatzak 4
- Ekainak 15

### **10 URTE 11 DINAMIKA**

Azkeneko bileratik hona egindako ekitaldiak aipatzen dira.

### **KULTUR AZOKAKO BIDEOA**

Maiatzan egin zen kultur azokako bideoa erkusten da. Orain intentzioa zabaltzea da.

### **AGENDA**

Urte bukaera arteko agenda errepasatzen da.

Bertso eskolatik aipatzen dute abenduaren 30ean Bertso Eskolako taldekakoa izanen dela eta azaroan Basurden egiten zen otordua pendiente dutela oraindik.

Bandako abenduko kontzertua 16an izanen dela ere aipatzen da.

### **KEZKAK ETA GALDERAK**

Miguel Rodriguez Yanciz hurrengo urtera begira Josu Okiñenaren Akelarre ekimena aipatzen du. Bere momentuan Udalak lagundu zuen eta konpromezua hemen emanaldiren bat egitea izanen zen. Miguel Josukin egonen da kontua zehazteko.

Gaizkak aipatzen du rock-musika taldeen entseguak ze eragina duten bertzelako erabiltzaileen dinamikan. Badirudi gaztetxeakoak xoko bat badutela lehen baino egokiagoa eta orain ez duela hainbertze eragiten.

Enekok aipatzen du futbol zelaiaren gainean dagoen txabola horren inguruan zerbaitetan dabiltzala Udala eta taldekide batzuk entsegu gela edo han egiteko.

Hurrengo bilera urriak 14.